

**ITZULPENA<sup>1</sup>**

---

Araua: EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN 399/2009 (EE) ERREGELAMENDUA, 2009ko apirilaren 23koa, Batzordeari esleitutako egikaritze-eskumenen eremuan, merkantzien errepede-garraioko estatistika-zerrendei buruzko Kontseiluaren 1172/98 (EE) Erregelamendua aldatzen duena.

---

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik.

---

<sup>1</sup> Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «REGLAMENTO (CE) N° 399/2009 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 23 de abril de 2009, por el que se modifica el Reglamento (CE) n° 1172/98 del Consejo, sobre la relación estadística de los transportes de mercancías por carretera, en lo que se refiere a las competencias de ejecución atribuidas a la Comisión» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 126/9 de 21/5/2009)

**399/2009/EE ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA**

**2009ko apirilaren 23koa**

**Batzordeari esleitutako egikaritze-eskumenen eremuan, merkantzien errepide-garraioako estatistika-zerrendei buruzko Kontseiluaren 1172/98 (EE) Erregelamendua aldatzen duena.**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa Eratzeko Trataturia, eta, bereziki, haren 285. artikuluko 1. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute [1],

Tratatuko 251. artikulua [2] araututako prozedurarekin bat,

Hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Kontseiluaren 1172/98 (EE) Erregelamendua [3] arautzen du neurri zehatz batzuk hartu behar direla, Kontseiluaren 1999/468/EE Erabakiak, 1999ko ekinaren 28koak, Batzordeari esleitutako egikaritze-eskumenak gauzatzeko prozedurak ezartzei buruzkoak, xedatzen duenari jarraituz [4].

(2) Kontseiluaren 2006/512/EE Erabakiak [5] aldatu egin zuen 1999/468/EE erabakia. Hala, Tratatuaren 251. artikuluari jarraiki hartutako oinarri-egintzetan oinarritzekoak ez diren elementuak aldatzea, elementu horietako batzuk kentzea edo egintzan funtsezkoak ez diren elementu berriak sartzea helburu zuten irismen orokorreko neurriak hartzeko kontrol-dun arautze-prozedura bat ezarri zuen 2006/512/EE Erabakiak.

(3) Europako Parlamentuak, Kontseiluak eta Batzordeak 2006/512/EE Erabakiari buruz egindako deklarazioak adierazitakoa betetzeko [6], Tratatuaren 251. artikuluan xedatutako prozeduren baitan indarrean dauden egintzei kontrol-dun arautze-prozedurak aplikatzeko, egintza horiek prozedura aplikagarriak bete behar dituzte.

(4) 1172/98/EE Erregelamenduari dagokionez, komeni da Batzordeari eskumenak ematea, datu-bilketaren eta eranskinen edukien ezaugarriak egokitzeko, eta estatu kideek emandako estatistika-datuei eta Erregelamendu honen garapenari dagozkion arauetako gutxieneko zehaztasun-eskakizunak ezartzeko, baita horiek garapen ekonomikora eta teknologikora egokitzeko hartutako neurriak ezartzeko ere. Neurri horiek orokorrak ez direnez, eta beren helburua Erregelamenduan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzea denez, 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan ezarritako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera onartu behar dira.

(5) Beraz, egokia da 1172/98 (EE) Erregelamendua, hori kontuan hartuz aldatzea.

HONAKO ERREGELAMENDU HAU EMAN DUTE:

*1. artikulua*

**Aldaketak**

1172/98/EE Erregelamendua jarraian adierazten den moduan aldatuko da:

- 1) 3. artikuluan, ondorengo testu hau jarriko da, 4. paragrafoaren lekuan:
- 2)

"4. Batzordeak datu-bilketaren ezaugarriak eta eranskinen edukia egokitu ditu. Neurri horren xedea da Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzea, eta, horrenbestez, neurri hori hartzeko, 10. artikuluko 3. paragrafoak ezarritako kontrol-dun arautze-prozedura behar da".

- 3) 4. artikulua ordez ondorengo testu hau jarriko da:
- 4)

*"4. artikulua*

**Emaitzen zehaztasuna**

Informazioa bildu eta tratatzeko metodoak diseinatzerakoan, kontuan izan behar da estatu kideek jakinarazitako datuek gutxieneko zehaztasun-eskakizunak bete behar dituztela, eta eskakizun horiek, aintzat hartu behar dituztela estatu kideen errepideko garraioen egiturazko ezaugarriak. Zehaztasun-eskakizunak Batzordeak ezarriko ditu. Neurri horren xedea da Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzea, eta, horrenbestez, neurri hori hartzeko, 10. artikuluko 3. paragrafoak ezarritako kontrol-dun arautze-prozedura behar da".

## *Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik*

3) Bosgarren artikuluan, ondorengo testu hau jarriko da, 2. paragrafoaren lekuan:

"2. 1. paragrafoan ezarritako datuak emateko moduei buruzko xedapenak, baita datu horietan oinarrituta egindako taula estatistikoei buruzkoak ere, 10. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako kontrol-dun arautze-prozedurari jarraiki egingo dira".

4) Seigarren artikulua ordez ondorengo testu hau jarriko da:

*"6. artikulua*

### **Emaitzen hedapena**

Merkantzien errepide-garraioko emaitzen hedapenari buruzko xedapenak, hedatu beharreko emaitzen egiturari eta edukiari buruzko xedapenak barne, 10. artikuluko 2. paragrafoan ezarritako kontrol-dun arautze-prozedura betez emango dira".

5) 9. artikulua kendu egingo da.

6) 10. artikulua ordez ondorengo testu hau jarriko da:

*"10. artikulua*

### **Komitearen prozedura**

1. Batzordeak 89/382/EEE Erabakiari jarraiki eratu zen Euratom programa estatistikoko komitearen laguntza izango du.

2. Honako paragrafo hau aipatzen duten kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 4. eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, 8. artikuluan xedaturikoa betez.

1999/468/EE Erabakiaren 4. artikuluko 3. paragrafoan jasotako epea hiru hilekoa izango da.

3. Paragrafo hau aipatzen denean, 1999/468/EE Erabakiaren 5 bis artikuluko 1., 2., 3. eta 4. paragrafoak, 5 bis artikuluko 5. paragrafoa a) idatz-zatia, eta 7. artikulua aplikatuko dira, 8. artikuluan xedaturikoa betez".

*2. artikulua*

### **Indarrean jartzea**

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeit hamar egunera jarriko da indarrean Erregelamendu hau.

Erregelamendu honen alderdi guztiak nahitaez bete beharrekoak dira, eta estatu kide bakoitzean zuzenean ezartzekoak izango dira.

Estrasburgon eginga, 2009ko apirilaren 23an.

*Europako Parlamentuaren izenean,  
Presidentea  
H.-G. Pöttering*

*Kontseiluaren izenean  
Presidentea  
P. Nečas*

[1] C 211 EO 2008.8.19koa, 36. or.

[2] Europako Parlamentuaren txostena, 2008ko irailaren 23koa (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2009ko martxoaren 23koa.

[3] L 163 EO, 1998.6.6koa, 1. or.

[4] L 184 EO, 1999.7.17koa, 23. or.

[5] L 200 EO, 2006.7.22koa, 11. or.

[6] C 255 EO 2006/10/21ekoa, 1. or.